

ERRI-BIDEA

Gure erriko eliz-gizonak, ez gorengo maillakoak, baiña bai erriaren erdian bizi izan diranak (errietako abadeak eta frailleak) eutsi egin dautsoe euskal izateari eta, onetan, erriko euskereari. Ez danak eta ez leku guztietan, zoritxarrez. Alan be, eurak izan dira, iñor izatekotan, erriagaz batera izate ori zaindu izan dabena. Ikustea baiño ez dago, esate baterako, gizaldietako idazleen izen-lerroa. Baiña idaztea ez da lenengoa ta eraginkorra; askoz garrantzitsuagoa da eguneroko alkar-bizitza, aozko berbeta artu-emonak. Eta onetan eurak izan dira erriagaz batera bizi izan diran ia karreradun bakarrak.

Ori egitean ez dabe ezer apartekorik burutu; berezko ta bearrezkoa zana baiño ez: erriaren semeak, bere erdian bizi ziran, euren berba ta serbitzua erriarentzat ziran; berezko ta zor ebena baiño ez dabe egin. Baiña *egin* egin dabe, beste gizarte mailla edo taldeak egin ez dabena. Eta, beraz, meritu áundirik izan ez arren, ikusi ta autortu bearrekoa da.

Orain be eliz-gizonak, eguneroko bizitzan ezeze, agiriko itzaldi eta eliz-liburuetan erriagandik ur dagoan berbeta artu dabe bidetzat, naiz ta beste bide bat artzeko indar gogorak eta bultzakadak inguruan asmatu. Eleizea erriari dagokio, eta erriaren benetako berbiteari. Izkuntza batek, erriaren izate-parte denez, errespetorik aundiena eskatzen dau, eta iñok ez dauka eskua ganean jarri eta zelan-gura erabilteko eskubiderik.

Beste batzuk, ostera, laster artu dabez euren erabagiak eta

jokerak: «Euskadi bat, hizkuntza bat» aldarrikatuz, beste guztiak eurenera nai-ta-nai-ez beartu gura ditue. Batasuna itxura ederreko berbea dala esan leike. Baiña emen, zer esan gura dau benetan? Batzen diranak ezereztutea. Beste guztiak kendu, eta euren lekuan bat bakarra (naiz lengo bat naiz barria) jarri ta artuazotea. Eta auxe da, ain zuzen be, orokortasun txarra, unibersalidade txarra. Benetako unibersalidadeak barruan artzen ditu parteak; unibersaltasuna ez da besterik parteen alkartasuna baiño: parte bakotxa besteakana zabaldurik.

1985'ko urtarrillaren 23'an Ardanza jaunak Eusko Parlamentuán, batuan barik, bere euskera jatorraz erantzun ebalako, alderdi bateko ordezkari-izlariak bereala zeresana izan eban. Nor da inor Eusko Parlamentuan lurralde bateko ordezkariak euren berbetea galerazoteko? Ala «Euskadi»k ez ete ditu bera eratzen daben lurraldeak onartzen? Zelako «Euskadi» litzake ori? Parte bat unibersalizatuta, parte bat beste parteen ordeztu ta lekuan. Politikan onek badau bere izena: inperialismoa, diktadurea.

Batasunaren izenean, besteak kendu, ta neurea artu-azo. Baiña anai arteko iraiñak amorrugarriagoak dira. Olako zapalke-tak, besteak bizi diran artean, zatiketa ta banaketa sortzen dabe berez. Besteak ildakoan, jakiña, batasun baketsua. Baten batasuna.

izkuntza beti be pentsakera ta jokera osoaren ispillu izaten da. Emen azken baten, era diferenteetan, diktadurea ta euskal demokrazia ete dabiltz burrukan? Alkar artu daigun: Auxe da euskal izakera. Baiña ez dago alkartzetik, zapalketa ta zatiketa baiño, asikerako alkar begirune barik.